



“ERDIALDE” EUSKARAZKO IDAZLAN LABURREN 15. LEHIAKETA Euskararen Lagunak antolatua

Arauk:

1. Parte hartzaileak: nahi duten guztiak.
2. Gaia librea izango da, gehienez 2 DINA4 orri alde batetik, ordenagailuz idatziak (letra berdea, 11 neurria) eta euskaraz.

3. Mailak:

- Gazteak multzo hauetan banatuak:

- D ereduko zein ikastoletako ikasleak
- Beste ereduetako ikasleak
- 6-10 urteko ikasleak
- 11-14 urteko ikasleak

- Helduak (15 urte baino gehiagokoak)

Parte hartzaile bakoitzak **idazlan bakarra** aurkeztuko du, argitaratu gabekoa, originala eta beste lehiaketa batean saritu gabekoa.

4. Lanak aurkezteko epea: **2022ko Maitzaren 3a** arte.

Gutunez aurkeztu nahi bada, honako helbide honetara bidali behar da: **Euskararen Lagunak, La Tudelana kalea 3, 31253 Miranda Arga, Nafarroa**. Gutun-azalean “Idazlan laburren lehiaketa” jarriko da.

Mezu elektronikoz aurkeztu nahi bada, hurrengo helbide honetara: erdialde.euskararenlagunak@gmail.com

Barruan sartuko den gutun-azal txikian jarriko dira lanaren izenburua, egilearen ezizena, eta maila. Gutun-azal itxi horren barruko orrian idatziko dira datu pertsonalak: **izen-abizenak, helbidea, adina, telefonoa eta ikastetxea (gazte mailan aurkeztekotan)**. Mezu elektronikoetan gauza bera eginen da erantsitako artxibo batean

Arau hauek betetzen ez dituzten lanak, lehiaketatik at geratuko dira.

5. Sariak. Maila bakoitzean gutxienez 3 sari izanen dira. Laster jakinaraziko dira gure web gunean.
6. **Sariak 2022ko maiatzaren 28an banatuko dira, Miranda de Argan** izanen den **“Euskararen eguna” ospakizunean**. Irabazleei alde aurretik abisatuko zaie.
7. “Euskararen Lagunak” elkarteak beretzat gordetzen ditu saritutako obrak argitaratzeko eskubideak, baita iragarritako sariak aldatzeko eskubidea ere. Idazlanak ez zaizkie itzuliko egileei.
8. Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin darama aurreko arau guztiak onartzea.

Informazio gehiago: <http://euskararenlagunak.wordpress.com/>